

# BIH - OHIKO GALDERAK

## - Galdera orokorrak -

### Aurkibidea

#### 1. GALDERA OROKORRAK

1.1. Zer da Berehalako Informazio Hornidura (BIH)?

1.2. Noiz hasiko da aplikatzen BIH berria?

Eguneratua  
2018.01.29

1.3. Eragiten al die BIHak BEZaren subjektu pasibo guztiei?

1.4. Posible al du HIEn izena emanda dagoen subjektu pasibo batek baja hartzea bere borondatez araubide horretan, BIHa indarrean jarri aurretik?

1.5. Posible al du entitate taldeen araubide berezira bilduta dagoen subjektu pasibo batek uko egitea araubide horri, BIHa aplikatu nahi ez badu, BIHa indarrean jarri aurretik?

Eguneratua  
2019.01.01

1.6. Nola egin behar da BIHa aukeratzeko borondatezko eran?

1.7. BIHa behin aukeratuta, nahitaezkoa al da gutxieneko epe batez aplikatzea?

1.8. BIHa aukeratu ondoren, ba al dago hari uko egitea?

1.9. Ba al dago kasuren bat subjektu pasiboa BIHtik kanporatzeko edo sistema horretan ez jarraitzeko?

Eguneratua  
2018.01.29

1.10. Zeintzuk dira BIHaren funtzionamendurako oinarrizko lerroak?

1.11. Fakturak bidali behar al dira GFARA?

1.12. Bidali behar den informazioa BEZaren Erregistro Liburuetan gaur jasotzen den berbera al da?

1.13. Zer abantaila ditu BIH berriak zergadunarentzat?

1.14. Ba al du hileko itzulketen erregistroan (HIE) izena emanda dagoen zergapekoak 340 ereduak aurkezteko obligazioa, BIHa aplikatzen duenean?

Eguneratua  
2018.01.29

1.15. Zein kasutan aurkeztu behar dizkiote GFARI fakturazio erregistroak BIHa erabiltzera behartutakoek?

1.16. Nola eragiten die BIHak eragiketa bolumenaren arabera tributatzen duten enpresei?

Eguneratua  
2018.01.29

1.17. Non dago araututa Berehalako Informazio Hornidura?

Berria  
2018.01.29

1.18. BIHa ekitaldi jakin bateko apiril, uztail edo urritik aurrera aplikatzen duen hileko itzulketen erregistroko zergapeko batek BIHaren bidez bidali behar al du ekitaldi horretan BIHan sartu aurretik egindako eragiketei buruzko informaziora?

Berria  
2018.01.29

1.19. Ekitaldi jakin bateko apiril, uztail edo urritik aurrera BIHa aplikatzen duen



Berria  
2019.05.02

zergapeko batek ekitaldi horretako 347 eredua aplikatu behar al du?  
1.20. Noiz bidali behar dira fakturazio erregistroak GFARA?

# BIH - OHIKO GALDERAK

## - Galdera orokorrak -

### 1. GALDERA OROKORRAK

#### 1.1. Zer da Berehalako Informazio Hornidura (BIH)?

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak [GFaren egoitza elektronikoa](#)ren bitartez eramateko sistema berria da BIHa, fakturazio erregistroak ia berehala bidaliz gauzaten dena. Horrek zeharo aldatzen du BEZaren gaurko kudeaketa sistema.

BIH berriarekin, fakturak erregistratu edo kontabilizatzeko unea haiekin lotuta dagoen eragiketa ekonomikoa egiteko unera hurbiltzen da.

[Itzuli](#)

#### 1.2. Noiz hasiko da aplikatzen BIH berria?

Gipuzkoan, 2018ko urtarrilean hasi da aplikatzen sistema berria, bai behartuta dauden subjektu pasiboentzat bai beren borondatez aukeratzen dutenentzat.

- Araban, Bizkaian eta Nafarroan 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.
- Arabide erkideko lurraldean: 2017ko uztailaren 1etik aurrera.

[Itzuli](#)

**Eguneratua  
2018.01.29**

#### 1.3. Eragiten al die BIHa BEZaren subjektu pasibo guztiei?

BEZa hilerik likidatu behar duten subjektu pasibo hauek daude behartuta BIHa aplikatzera:

- BEZaren HIEan izena emandakoak (Hileko Itzulketen Erregistroan)
- Enpresa handiak (6.010.121,04 €-tik gorako fakturazioa dutenak)
- BEZaren taldeak (Entitate taldeen araubide berezian daudenak)

Dena den, aurreko ekitaldian 6.010.121,04 eurotik gorako eragiketa bolumena duten eta, beraz, enpresa handitzat hartzen diren subjektu pasiboak BIHa erabiltzera behartuta egongo dira, kontuan hartu gabe beren eragiketen motaren arabera autolikidazioa aurkeztera derrigortuta dauden edo ez.

BIHa gainerako subjektu pasiboetara ere aplikatu dakieke, hura aplikatzea aukeratzen badute.

[Itzuli](#)

#### **1.4. Posible al du HIEan izena emanda dagoen subjektu pasibo batek baja hartzea bere borondatez araubide horretan, BIHa indarrean jarri aurretik?**

Bai. Aurreikusita dagoen arau aldaketa onartzen denean, aparteko epe bat zabalduko da hileko itzulketen erregistroan baja eskatzeko 036 zentsu aitortpenaren bitartez.

[Itzuli](#)

#### **1.5. Posible al du entitate taldeen araubide berezira bilduta dagoen subjektu pasibo batek uko egitea araubide horri, BIHa aplikatu nahi ez badu, BIHa indarrean jarri aurretik?**

Bai. Aurreikusita dagoen arau aldaketa onartzen denean, aparteko epe bat zabalduko da araubide horri 2018. urteari dagokionez uko egiteko 039 zentsu aitortpenaren bitartez.

[Itzuli](#)

**Eguneratua  
2019.01.01**

#### **1.6. Nola egin behar da BIHa aukeratzeko borondatezko eran?**

Zeinahi unetan, errolda aitortpenean adierazita (036 ereduaren 280 laukia). Hala, zergaduna sisteman jasota geratuko da aukera hori adierazi den likidazio aldia amaitzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Adibidea: Demagun BIH aukeratzeko duen enpresa bat, 036 ereduaren 2019ko apirilaren 10ean aurkeztu duena. Enpresa hori sisteman jasota geratuko da 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

Aukera hori 2018an hautatu bazuen, BEZ zerga hileroko-autolikidatu behar izan zuen.

2018ko ekitalditik aurrera hasitako likidazio aldiei dagokienez, BIH sistemari heltzen dioten subjektu pasiboek hiru hilero likidazio aldiari eutsiko diote.

[Itzuli](#)

#### **1.7. BIHa behin aukeratuta, nahitaezkoa al da gutxieneko epe batez aplikatzea?**

Bai. Aukeratu den urte natural osorako aplikatu behar da.

[Itzuli](#)

## 1.8. BIHa aukeratu ondoren, ba al dago hari uko egitea?

BIHa aukeratzen dutenek, gutxienez aukera egin duten urte natural horretan fakturazio erregistroak bidali beharko dituzte.

Aurrekoa bete ondoren, zentsu aitorpenean posible da sistemari uko egitea ondorioak sortu behar dituen urte naturala hasi aurreko azaroan.

[Itzuli](#)

## 1.9. Ba al dago kasuren bat subjektu pasiboa BIHtik kanporatzeko edo sistema horretan ez jarraitzeko?

Enpresaburuak edo profesionalak hileko likidazio-aldiarekin jarraitzen ez badu behintzat:

- HIEtik kanpo geratzeak berekin dakar BIHa aplikatzeko obligaziotik salbuestea salbuespenari buruzko erabakia jakinarazi den likidazio-aldiko lehen egunetik aurrera.
- Entitate taldeen araubide berezian ez jarraitzeak berekin dakar BIHan ez jarraitzea hura uzten den unetik aurrera.

BIHtik kanpo geratzen diren subjektu pasiboek 347 eredua aurkeztu behar dute.

[Itzuli](#)

**Eguneratua**  
**2018.01.29**

## 1.10. Zeintzuk dira BIHaren funtzionamendurako oinarrizko lerroak?

BIHa aukeratzen duten subjektu pasiboek erregistro liburu hauek eraman behar dituzte GFAREN egoitza elektronikoen bitartez, fakturazio erregistroak elektronikoki bidaliz:

- Egindako Fakturen erregistro liburua.
- Jasotako Fakturen erregistro liburua.
- Inbertsio Ondasunen erregistro liburua.
- Batasun Barruko hainbat Eragiketaren erregistro liburua.

Horretarako, fakturazioari buruzko xehetasunak bidali behar dituzte GFARA, eta informazio horrekin erregistro liburuak osatuz joango dira, ia denbora errealean.

Fakturazio erregistroak bidaltzeko bi modu aurreikusten dira:

1. Bide elektronikoz, eta, zehazki, XML mezuen elkartrukean oinarritutako web zerbitzuen bitartez.  
Erregistroen igorpen horretan, goiburu komun batek adieraziko du zein den erregistro liburu bakoitzaren titularra eta zer ekitaldi eta epealditan erregistratu diren eragiketak. Goiburu horren ondoren, fakturen edukia etorriko da.
2. "Web formulario" baten bitartez, subjektu pasiboek eragiketa gutxi egin dituztenean edo faktura jakin batzuen erregistroak modu bakartuan bidali nahi

direnean.

Bi kasuetan, informazio hori bidali behar da foru agindu honen arabera: 467/2017 Foru Agindua, azaroaren 13an GAOren 216 zenbakian argitaratua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez nola eraman garatzen duten zehaztaperen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituenak.

[Itzuli](#)

#### 1.11. Fakturak bidali behar al dira GFARA?

Ez. Fakturazio erregistroak dira bidali behar direnak, bidezko 467/2017 Foru Aginduak haietako bakoitzerako onartzen dituen eremuak beteta.

[Itzuli](#)

#### 1.12. Bidali behar den informazioa BEZaren Erregistro Liburuetan gaur jasotzen den berbera al da?

Ez. Informazio jakin bat bakarrik bidali behar da GFAREN egoitza elektronikora, eta informazio hori toki hauetan dago gaur:

- BEZaren Erregistro Liburuetan
- Faktoretan
- 340 eta 347 ereduetan

[Itzuli](#)

#### 1.13. Zer abantaila ditu BIHak zergadunarentzat?

Hasierako fasean, abantaila hauek ditu zergadunarentzat BIH berriak:

- Betebehar formalak murrizten ditu, 347 eta 340 ereduak aurkezteko obligazioa desagertzen delako.
- Informazio errekerimendu gutxiago egitea dakar, gaurko errekerimendu askoren xedea izaten baita fakturak edo faktoretako datuak eskatzea eragiketara jakin batzuk egiaztatzeko.
- Etorkizunean, posible izango da datu fiskalak kontsultatzea, bai enpresek berek aitortutakoak bai BIHra bildutako bezero edo hornitzaileek egotzitakoak.

[Itzuli](#)

#### 1.14. Ba al du hileko itzulketen erregistroan (HIE) izena emanda dagoen zergapekoak 340 ereduak aurkezteko obligazioa, BIHa aplikatzen duenean?

Ez. 340 ereduak aurkezteko obligazioa desagertzen da.

[Itzuli](#)

Eguneratua  
2018.01.29

### 1.15. Zein kasutan aurkeztu behar dizkiote GFari fakturazio erregistroak BHla erabiltzera behartutakoek?

Zergadunak behartuta daude fakturazio erregistroak Zerga Administrazio honi aurkeztera, haiek ikuskatzeko eskumena GFari dagokionean.

Ikuskatzeko eskumen hori kasu hauetan dagokio GFari:

- Subjektu pasiboaren zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoenean eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milioi € edo txikiagoa izan denean.
- Subjektu pasiboaren zerga helbidea Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoenean eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milioi € baino handiagoa izan denean, baldin eta lurralde erkidean egindako eragiketen portzentajea %75etik beherakoa bada eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan eragiketak egiten baditu.
- Subjektu pasiboaren zerga helbidea Arabako edo Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milioi € baino handiagoa izan denean, beti ere Gipuzkoako Lurralde Historikoan eragiketen %100 egiten baditu.
- Subjektu pasiboaren zerga helbidea lurralde erkidean badago eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milioi € baino handiagoa izan denean, beti ere Euskal Autonomi Erkidegoan egindako eragiketa bolumena %75ekoa edo gehiagokoa bada (entitate taldearen araubide berezian daudenak %100) eta Euskal Autonomi Erkidegoan egiten diren eragiketen bolumen osoaren gehiengoa Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten baditu.

[Itzuli](#)

### 1.16. Nola eragiten die BIHak eragiketa bolumenaren arabera tributatzen duten enpresei?

Jarduten duten zerga Administrazioetan jarraitu behar dute aurkezten BEZaren aitorpenak, bertako aitorpen ereduak eta epeen arabera.

Dena den, enpresa BEZaren ondorioetarako ikuskatzen duen zerga administrazioari bakarrik eman behar diote BIHko informazioa, zerga administrazio horren araudiari jarraituz.

[Itzuli](#)

Eguneratua  
2018.01.29

### 1.17. Non dago araututa Berehalako Informazio Hornidura?

Gipuzkoako lurralde Historikoan honako araudia da aplikagarria:

- Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko [47/2013 Foru Dekretuaren](#) bidez onartzen dena.
- Fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, otsailaren 26ko [8/2013 Foru Dekretuaren](#) bidez onartzen dena.
- BEZaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 29ko [1624/1992 Errege](#)

Dekretua.

- [467/2017 Foru Agindua](#), azaroaren 13an GAOren 216 zenbakian argitaratua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituena.
- [592/2017 Foru Agindua](#), abenduaren 29koa, fakturazio erregistroak elektronikoki bide telematikoz bidaltzeko gizarte lankidetzaren baldintzak onartzen dituena, 001-P edo 001-L ordezkariak ez dutenentzat.

Itzuli

**Berria**  
2018.01.29

**1.18. BIHa ekitaldi jakin bateko apiril, uztail edo urritik aurrera aplikatzen duen hileko itzulketen erregistroko zergapeko batek BIHaren bidez bidali behar al du ekitaldi horretan BIHan sartu aurretik egindako eragiketei buruzko informaziora?**

Eskatutako BEZaren itzulketak gestionatzeko, beharrezkoa izango da informazioa bidaltzea, hurrenez hurren, urtarriletik martxora, urtarriletik ekainera eta urtarriletik irailera bitarteko fakturei buruz. Informazioa bidaltzeko epea ekitaldiko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Faktura horiek "Araubide bereziaren edo zerga garrantziaren gakoa" eremuan erregistratuko dira, balio moduan "Aurreko lehen ekitaldia" adierazita (16 gakoa egindako fakturretan, eta 14 gakoa jasotako fakturretan).

Informazioa bidaltzeko betebeharra 036 eredu aurkezten denetik aurrera hasiko da. Eredu hori aurkezten den hilabeteko fakturak zentsu eredu aurkeztu aurrekoak izanez gero, ondorengo hilaren 16aren aurretik informatu beharko dira.

Itzuli

**Berria**  
2018.01.29

**1.19. Ekitaldi jakin bateko apiril, uztail edo urritik aurrera BIHa aplikatzen duen zergapeko batek ekitaldi horretako 347 eredu aplikatu behar al du?**

Ez.

Itzuli

**Berria**  
2019.05.02

**1.20. Noiz bidali behar dira fakturazio erregistroak GFARA?**

**A) Jaulkitako fakturak**

Egutegiko lau eguneko epean, faktura egiten denetik, honako kasu honetan izan ezik: faktura jasotzaileak edo hirugarren batek egiten badu, epealdia egutegiko zortzi eguneko izango da. Nolanahi ere, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zerga sortuko litzatekeen hila amaitu eta hurrengoaren hamaseigarrena baino lehen eman beharko da informazio hori. Hala eta guztiz ere, faktura egin behar bada ere, zergaren eraginpeko eragiketak direnean, azken epea eragiketa egin deneko dataren arabera zehaztuko da. Epemuga faktura egiteko epealdiaren amaierarekin bat dator, 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako Fakturazio Erregelamenduaren 11. artikulua xedatutakoari jarraiki. Bada, enpresabururen batek sortzapenaren hurrengo hilaren hamabosgarren egunean ematen badu, fakturazio erregistroak



egun horretan bertan bidali beharko ditu BIHren bidez (Europako Erkidegoaren barruko bidalketak izan ezean).

1. adibidea. A enpresaburuak beste enpresaburu bati egin dio zerbitzua 2019ko abuztuaren 2an, eta eragiketari dagokion faktura egun horretan bertan egin du. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea abuztuaren 8an amaituko da.

2. adibidea. A enpresaburuak beste enpresaburu bati egin dio zerbitzua 2019ko irailaren 3an, eta eragiketari dagokion faktura 2019ko urriaren 11n egin du (faktura bidaltzeko epea urriaren 15ean amaituko da). Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea urriaren 15ean amaituko da (horixe da epemuga).

3. adibidea. Enpresaburu batek Europako Erkidegoaren barruko ematea egin dio Frantziako bezero bati. Ondasunen garraioa 2019ko urriaren 19an hasi da eta faktura 2019ko azaroaren 15ean egin da (faktura egiteko azken egunean, Fakturazio erregelamenduaren 11.2 artikulua ezarritakoari jarraiki, eta horixe da eragiketaren sortzapenaren data). Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea azaroaren 21ean amaituko da.

## B) Jasotako fakturak

Egutegiko lau eguneko epean, faktura kontabilitatean erregistratzen denetik, eta nahitaez eragiketak sartzen diren likidazioaren aldia amaitu ondoko hilaren 16a baino lehen (jasandako BEZa kentzen den aldia).

Ulertu behar da fakturaren kontabilitate erregistroa kontabilitate sisteman jasotzen den datan gertatzen dela, kontabilitateko idazpenean jasotako data zein den.

4. adibidea. Faktura bat 2019ko uztailaren 9an jaso duen enpresaburu batek faktura erregistratu eta jasandako zenbatekoa uztaileko autolikidazioan kendu nahi du. Horretarako, abuztuaren 13an egingo du fakturaren kontabilitate erregistroa eta data horretan sartuko du sisteman. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko azken eguna 2019ko abuztuaren 16a izango da (horixe da epemuga).

5. adibidea. Faktura bat 2019ko abuztuaren 9an jaso duen enpresaburu batek fakturaren kontabilitate erregistroa egin eta urriaren 13an bidali du sistemaren bidez. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea hau izango da:

a) Urriaren 15a, faktura iraileko autolikidazioan kentzen badu (horixe da epemuga).

b) Urriaren 17a, faktura urriko autolikidazioan kentzen badu (horixe da epemuga).

Aurreko adibideak aintzat hartuta, faktura bat kendu ahal izango da faktura jaso eta horren idazpena egiten denean jasotako fakturen erregistro liburuan, betiere hala egiten bada dagokion autolikidazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen. Hala eta guztiz ere, erregistroak BIH sistemaren bidez bidaltzeko epemuga aintzat hartu behar da, hots, kenkaria egiten deneko hilaren hurrengoaren hamabosgarren eguna.

6. adibidea. Enpresaburu batek kontabilitatean erregistratu du jasotako faktura bat, baina ez daki jasotze data zein izan den. Sisteman jaso duen data 2019ko urriaren 13koa da. Faktura hori BIHren bidez bidaltzeko epealdia urriaren 17koa amaituko da. Hala, faktura kendu ahal izango da urriko hilabeteari dagokion likidazio alditik aurrera.

Inportazio eragiketak egiten direnean, egutegiko lau egunak zenbatzen hasi beharko dira Aduanak egindako BEZ zergaren likidazioa jasotzen duen agiria kontabilitatean erregistratzen

denetik, betiere eragiketa horiek jaso direneko aitopenerari dagokion epealdiaren amaieren hurrengo hilaren hamaseigarren eguna baino lehen (epe horretan kentzen baita jasandako BEZ zerga).

7. adibidea. Enpresaburu batek era askean izapidetutako salgaiak inportatu ditu 2019ko urriaren 25ean. Data horretan bertan, administrazio dokumentu bakarra onartu eta aduanak BEZ zerga likidatu du. Enpresaburuak jasandako zenbatekoa kontsignatu eta kendu du urriko autolikidazioan, eta kontabilitatean jaso du 2019ko azaroaren 9an. Administrazio dokumentua bakarraren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea azaroaren 14an amaituko da.

### **C) Europar Erkidegoaren barruko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuk**

Egutegiko lau eguneko epean, ondasunen bidalketa edo garraioa hasten denetik edo, bestela, haiek jasotzen direnetik.

### **D) Inbertsio ondasunei buruzko informazioa**

Urteko azken likidazioa aurkezteko epealdiaren barruan (urtarrilaren 30a arte).

### **E) Faktura zuzentzaileak**

Egutegiko lau eguneko epean, ondasunak bidaltzen direnetik edo, faktura kontabilitatean erregistratzen denetik, hurrenez hurren. Faktura zuzentzaileak hasieran kendutako zenbatekoa baino handiagoa ekarriz gero, 37/1992 BEZ Legearen 114.Bi.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, epealdia jasotako faktuera izango da.

**AINTZAT HARTZEKO EPEALDIAK, BIH SISTEMARI HELTZEKO AUKERA URTARRILAREN 1a EZ DEN DATA BATEAN EGITEN DENEAN:** Urtarrilaren 1en eta BIH sistemari heltzeko aukera egin den arteko epeari dagokion informazioa bidaltzeko epealdia heltzeko aukera egin den datatik ekitaldiaren amaiera artekoa izango da.

**EPEAK ZENBATZEA:** Aipatutako 4 eta 8 egun naturalen zenbaketan ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan jaiegunak diren egunak.

Hala, hurrengo hilaren hamabosgarren eguna, hau da, epemuga, larunbata, igandea edo jaieguna bada, epemuga hurrengo egun balioduna izango da.

[Itzuli](#)